

***Euskalgintzaren iharduna ez dago soilik dirulaguntza eta aurrekontuen baitan, baina hori ere indarrean dagoen hizkuntz politikaren eta euskalgintzari orohar ematen zaion garrantziaren adierazgarri da. EKB, 1991az geroztik ari da Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako gobernuaren euskararako aurrekontuen azterketa egiten. Aurten Iparraldeko euskalgintzak, besteak beste, Pyrénées Atlantiques departamendutik eta Akitaniako errejiotik jasotzen duena ere bildu dugu. azterketak ez du pozik egoteko arrazoi gehiegirik ematen. Arras larria da Iparraldearen kasua eta EAEn nola Nafarroan euskarari dagozkion arlo gehienetan beheranzko joera nabarmentzen da, eta hori benetan da kezagarria bai euskarari eta baita euskalgintzaren geroari tinko eutsi nahi badiogu.***

## **EUSKARAREN AURREKONTUAK**

**Olatz Osa**

*EKBko idazkari teknikoa*

### **SARRERA**

Herri baten hizkuntza eta kultur iharduera bermatu eta garatzeko, ez da aski finantziabide iturriak ziurtatu eta diruboltsak sendotzen joatea. Hizkuntza eta kultura garatuko duen diseinu eta irizpide egokiak finkatzea funtsezkoa izaki, hizkuntz eta kultur politika erreal eta aurrerakoia taiutzea ezinbestekoa da. Zer esanik ez hizkuntza eta kultur iharduera hori egoera gutxiagotuan aurkitzen bada.

Baina diseinu politikoa politikeriatan gera ez dadin, bistan da, hala instituzioetatik nola herri ekimenetik datorkeen etengabeko sormen, garapen eta ekimen oro ziurtatu behar dela. Horretarako baliabideak dira premiazko, izaera ezberdineko baliabideak, baita ekonomikoak ere.

Hain zuzen ere, azken urteotako baliabide ekonomikoak zer eman duten azaltzera dator ondoko lana eta berau, EKBk egin berri duen Euskal Herriko administrazio publikoek 1995ean euskararako dituzten aurrekontuen azterketan oinarritzen da.

Ezinbestean, azterketok hiru ataletan banatuta behar izan ditugu, jakina baita euskalgintzak Ipar Euskal Herrian zein hegoaldeko Nafarroa eta EAEn iturri ezberdinetatik edaten duela. Beraz, EAEn dago-kionean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak hizkuntz politikarako

dituen aurrekontuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak hezkuntzaren euskalduntzerako bideratutakoa eta administrazioa euskalduntzeko partida aztertu ditugu; Nafarroari dagokionez, Nafarroako gobernuaren Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuak eta Hezkuntza eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzua-renak aztertu ditugu; Iparraldeari dagokionean ostera, Akitaniako erre-  
giotik, Pyrénées Atlantiques departamendutik, gobernutik zein uda-  
letatik euskara sustapenerako bideratutakoa.

1995eko Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako gobernuaren aurrekontuak, 1991az geroztikako aurrerakoekin alderatu ditugu, ez urte hartako aurrekontuak eredugarriak direlako hizkuntz politikaren aldetik, bai ordea 1991tik 1992ra bitartean eman zen murrizketaren ondorioz sor-  
tutako protesta eta egonezinak bultzatuta, EKBk euskararako aurre-  
kontuen azterketa egiteari ekin ziolako. Iparralderako aurrekontue-  
kin ez dugu alderaketa bera erabili ez baitugu urtez urteko datuak  
eskuratzerik izan eta zenbait iturrietatik azken urte hauetan dirula-  
guntzak bere horretan mantendu direla esan badigute ere, 1995. urtera  
mugatu dugu gure azterketa.


Urtez urteko datuen alderaketa egiterakoan, ikusten denez, KPIa (IPC)  
kontutan hartu dugu, horrela soilik atzeman baitezakegu urte batetik  
bestera ematen den jaitsiera zein igoera erreala zenbatekoa den, urte-  
roko diruaren balio aldaketak izugarri aldatzen baititu aurrekontuen  
bilakaeraren emaitza.

Pasa gaitezen jarraian azterketak zer eman duen ikustera:

#### **EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAK**

Aurrez esan bezala, Eusko Jaurlaritzaren euskararako aurrekontuak  
hiru sailetan jasotzen dira: Kultura Saileko Hizkuntz Politikarako Idaz-  
karitza Nagusia, administrazioa euskalduntzeko programa eta  
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Sailak hezkuntzaren eus-  
kalduntzerako duena hain zuzen. Aurtengoan Hizkuntz Politikarako  
Idazkaritza Nagusia, Kultura departamendu barruan sartzen da au-  
rreko urteetan ez bezala, 1995era bitarteko urteetan Hizkuntz Politika  
Lehendakaritza sailean sartzen baitzen.

Eusko Jaurlaritzaren euskararako aurrekontuek bilakaera hau izan dute  
azken bost urteotan:



-1991tik 1995era Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak %38,9ko igoera izan du, eta epe berean, euskararen aurrekontuak %38ko igoera. Euskararen aurrekontuen barruan, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila, Hazienda eta Administrazio publikoaren Saila eta Kultura Saila sartzen dira.

-Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Saila da nabarmen igotzen dena, 1991tik 1995era %97,3ko igoera baitu. Hazienda eta Administrazio Sailak 1991tik 1995era %37,9ko igoera izan du, nahiz eta 1992tik 1995era %38,69ko jaitsiera izan. Kultura Saileko aurrekontuak berriz, 1991tik 1995era %0,67 jaitsi dira. KPIa (IPC) kontutan hartuta jaitsiera erreala %19,11koa da.


Euskararen aurrekontuek suposatzen dutena argiro ikusteko komenigarria da Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrekiko alderaketa egitea.

	Jaurlaritza guztiarekiko 1991 %		Jaurlaritza guztiarekiko 1992 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	Jaurlaritza guztiarekiko 1993 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
Eusko Jaurlaritza guztira	476.500	% 100	538.071	% 100	(+% 12,92)	619.598	% 100	(+% 15,15)
Euskara guztira	6.666	% 1,40	6.888	% 1,28	(+% 3,33)	8.830	% 1,43	(+% 28,19)

	Jaurlaritza guztiarekiko 1994 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	Jaurlaritza guztiarekiko 1995 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
Eusko Jaurlaritza guztira	631.712	% 100	(+% 1,96)	662.200	% 100	(+% 4,83)
Euskara guztira	8.664	% 1,37	(-% 1,88)	9.202	% 1,39	(+% 6,21)

## Olatz Osa - Euskararen aurrekontuak

Hona hemen, Eusko Jaurlaritzaren euskararako aurrekontuak sailez sail izan duten bilakaera.



	1991	1992	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1993	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1994	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1995	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
<b>GUZTIRA</b>	3.453	2.534	(- % 26,23)	3.392	(+ % 33,86)	3.299	(- % 2,74)	3.412	(- % 3,43)
Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia	318	402	(+ % 26,42)	341	(- % 15,17)	320	(- % 6,16)	3.386	(- % 3,47)
Kultura Saila: "Promoción Euskara"	3.117	2.092	(- % 32,88)	3.009	(+ % 43,83)	2.935	(- % 2,46)	(2)	
Kultura Saila: euskarazko liburugintzaren subentzioak (1)	(42)	40	(- % 4,76)	42	(+ % 5,00)	44	(+ % 4,76)	44	(- % 0,00)


Hizkuntz Politikak eta Euskararen Sustapen programak dituzten aurrekontuak ez daude 1991ko mailan ere:

- 1991ko kopurua baino %0,67 txikiagoa da 1995eko aurrekontua. Baina:

- KPIaren (IPC) igoera kontutan hartuta, 1991ko 3.435 milioi horiek gaur eguneko 4.218 pezeta lirateke. Hau da, errealki %19,11 jaitsi dira Hizkuntz Politika eta Euskararen Sustapenaren aurrekontuak 1991tik 1995era.

Hizkuntz Politikaren barruan badago euskalgintzako erakunde sozia-  
lei bideratutako subentzio partida bat. Euskalgintzan dihardugun  
erakundeentzat honek duen garrantziaz jabeturik, subentzio partida  
horrek izan duen bilakaera aztertu dugu.

### Hizkuntz Politika eta Kultura Saila: Subentzioak euskalgintzako elkarte ez publikoei



	1991	1992	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1993	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1994	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1995	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
<b>GUZTIRA</b>	390	365	(%6,42)	380	(+%4,25)	429	(+%12,89)	408	(-%4,90)
HPINek emandako subentzioak	126	196	(+%55,56)	158	(-%19,39)	152	(-%4,11)	364	(-%5,45)
Kultura Saila: "Promoción Euskara"tik emandako subentzioak	264	129	(-%51,23)	180	(+%40,08)	164	(-%9,17)	(3)	
Kultura Saila: euskarazko liburugintzarako subentzioak (1)	(42)	40	(-%4,76)	42	(+%5)	44	(+%4,76)	44	(+%0)
Kultura Saila: besterik (2)						70			

- 1994tik 1995era subentzioetarako kopurua %4,9 jaitsiko da, gobernuaren aurrekontu orokorrak %4,8 igo diren bitartean. Gainera, kontutan hartu behar da KPIa (IPC) %4,7 igo dela 1994an.


-1991ko kopurua baino %4,62 haundiagoa da 1995eko aurrekontua. Baina:

-KPIaren (IPC) igoera kontutan hartuta, 1991ko 390 milioi horiek gaur eguneko 479 milioi pezeta lirake. Hau da, errealki %14,82 jaitsi dira Hizkuntz Politikak eta Kultura sailak euskararako ematen dituen subentzioak 1991tik 1995era.

-Gainera kontutan hartuta Euskaldunon Egunkariarentzat 70 milioiko subentzio partida zabaldu dela, 1995ean subentziotarako bideratutako 408 milioiko partida horrek 549 milioikoa behar luke izan.


## Olatz Osa - Euskararen aurrekontuak

Eusko Jaurlaritzaren euskararako aurrekontuetan sartzen da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko, hezkuntz sistemaren euskalduntzerako bideratzen den partida. Sail honetan izandako igoerak ondorioztatzen du hain zuzen euskararen aurrekontu orokorren gorakada.



1991tik 1995era %97 igo da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hezkuntz sistema euskalduntzeko bideratutako aurrekontua eta KPIa (IPC) kontutan hartuta, igoera erreala %74,5ekoa da. Subentzioetarako partida da igoera gutxien izan duena, %48a hain zuzen, KPIa (IPC) kontutan hartuta, 1991ko 504 milioi horiek egungo 618 lirateke, beraz igoera erreala %20,71koa da.


Euskalduntze alfabetatzeak hizkuntzaren normalizazioan duen garrantziagatik, HABEk duen aurrekontuaren bilakaera aztertzea, eta bereziki euskaltegi ez publikoei urtez urte eman zaien dirulaguntzen berri emateari garrantzitsua deritzogu.



<b>HABE</b>	1991	1992	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1993	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1994	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	1995	Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	3.350	3.302	(- % 1,43)	3.621	(+ % 9,66)	3.435	(- % 5,14)	3.443	(+ % 0,23)
Kultura sailetik	2.750	1.895	(- % 31,09)	2.800	(+ % 47,76)	2.733	(- % 2,39)	2.781	(+ % 1,76)
Hazienda eta administrazio publikoaren Sailetik (1)	500	700	(+ % 40,00)	750	(+ % 7,14)	640	(- % 14,67)	640	(+ % 0,00)
Bere ihardueretatik	100	707	(+ % 607,0)	71	(- % 89,96)	62	(- % 12,68)	22	(- % 64,52)
<b>IRTEERAK GUZTIRA</b>	3.250	3.302	(- % 1,43)	3.621	(+ % 9,66)	3.435	(- % 5,14)	3.443	(+ % 0,23)
Subentzioak euskaltegi publikoei	981	1.079	(+ % 9,99)	1.237	(+ % 14,64)	1.276	(+ % 3,15)	1.346	(+ % 5,49)
Subentzioak euskaltegi ez publikoei	1.041	1.168	(+ % 12,20)	1.358	(+ % 16,27)	1.135	(- % 16,42)	1.439	(+ % 26,78)
Gainerako gastuak	1.328	1.055	(- % 20,66)	1.026	(- % 2,75)	1.024	(- % 0,19)	658	(- % 35,74)

-1994tik 1995era 304 milioitan hazi da euskaltegi ez publikoetarako subentzioen kopurua. 1993tik 1994era bitartean %16,5eko jaitsiera eman bazen ere.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuekin bukatzeko horra, HAEE/IVAPen administrazioa euskalduntzeko partidak zer bilakaera izan duen. Ez da ahaztu behar funtzionariak euskalduntzeko programan, aurrekontu honetaz gain, gainerako instituzioek, udalak barne, ematen dutena gehitu behar dela.




-1991tik 1995era %37,9 igo da HAEE-IVAPen administrazioa euskalduntzeko partida. 1992tik 1995era berriz, %38,69 jaitsi da partida bera.



**NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAK**

Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Kultura Saileko euskarara Zerbitzuaren aurrekontuak hartu ditugu kontutan, horiek baitira Nafarroako gobernuaren euskararen sustapenerako aurrekontuak jasotzen dituzten sailak

Ikus dezagun azterketak zer eman duen:



-1991ko kopurua baino %28,4 haundiagoa da 1995an Hizkuntz Politika, Hezkuntza eta Kultura Sailak euskararako bideratutako aurrekontua. KPIa (IPC) kontutan izanda, 1991ko 750,5 milioi horiek gaur eguneko 921,5 behar lukete izan. Hau da errealki %4,5 igo dira Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kultura Sailaren euskararako aurrekontuak 1991tik 1995era.

-1992ko kopurua baino %6 txikiagoa da 1995ekoa. KPIa (IPC) kontutan hartuta, 1992ko 1.027 milioi horiek egungo 1.223 behar lukete izan, beraz errealki 1992tik 1995era %21,2 jaitsi dira euskararako aurrekontuak.

-Nafarroako gobernuaren aurrekontu orokorrak 1994tik 1995era bitartean %5,3 igo diren arren, 1994tik 1995era bitartean euskararen aurrekontuak %3,65 jeitsi dira. Gainera kontutan hartu behar da KPIa (IPC) %4,7 igo dela 1994an.


Ikusten denez, Nafarroako gobernuaren aurrekontu orokorrekin alde-ratuz, benetan hutsala da euskararako bideratzen den partida.

## Olatz Osa - Euskararen aurrekoak

	Gobernuaren guztiarekiko 1991 %		Gobernuaren guztiarekiko 1992 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	Gobernuaren guztiarekiko 1993 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
NAFARROAKO GOBERNUA GUZTIRA	212.574	% 100	237.883	% 100	(+% 11,91)	239.512	% 100	(+% 0,68)
EUSKARA GUZTIRA	751	% 0,35	1.027	% 0,43	(+% 36,84)	1.029	% 0,42	(+% 0,19)

	Gobernuaren guztiarekiko 1994 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan	Gobernuaren guztiarekiko 1995 %		Aurreko urtearekiko bilakaera %tan
NAFARROAKO GOBERNUA GUZTIRA	230.883	% 100	(-% 3,60)	243.094	% 100	(+% 5,29)
EUSKARA GUZTIRA	1.001	% 0,43	(-% 2,72)	963	% 0,39	(-% 3,80)

Behin alderaketa orokorra ikusita interesgarria da atal bakoitzak eman duenaz jabetzea. Jarraian ageri den grafikoak Hezkuntza eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzuak azken urteotan izandako aldaketaren berri ematen du.




-1991tik 1995era %4,87 jaitsi dira Hezkuntza eta Kultura Sailak euskararako bideratutako aurrekontuak. KPIa (IPC) kontutan hartuta, 1991ko 277 milioi horiek egungo 340 milioi beharko lukete izan, beraz jaitsiera erreala % 22,5ekoa da.

-1992tik 1995era berriz, %12 jaisten dira Hezkuntza eta Kultura Sailak euskararako bideratutako aurrekontuak. KPIa (IPC) kontutan hartuz, 1992ko 299,5 milioi horiek egungo 347,5 beharko lukete izan. Beraz errealki 1992tik 1995era %24,17 jaitsi dira aurrekontuak.

-Azpimarratzekoa da sail honetan ematen den jaitsiera, erakunde sozialei bideratutako subentzioena dela, 1991tik 1995era % 33,9 jaisten dira. KPIa (IPC) kontutan hartuz, 1991ko 172 milioi horiek egungo 221,5 milioi lirateke, beraz errealki jaitsiera %48,7koa da. 1992tik 1995era erakunde sozialei bideratutako subentzio hauek, %40,6 jaisten dira. KPIa (IPC) aplikatuz 1992ko 191,5 milioiak egungo 222 milioi lirateke eta beraz jaitsiera erreala % 48,87koa izan da.

Nafarroako gobernuaren euskarako aurrekontuak beregain dituen bigarren atala, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiarena da.

Ondoko grafikoan beronen bilakaeraren berri ematen da.




## Olaz Osa - Euskararen aurrekontuak

-1992tik 1995era %3,65 jaitsi dira Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuak. KPIa (IPC) kontutan izanda, 1992ko 726,5 milioiak egungo 842,5 behar lukete izan, beraz errealki %16,9 jaitsi dira aurrekontuak.

-Jaitsiera nabarmenena 1994tik 1995era ematen da, %5,9koa hain zuzen ere. KPIa (IPC) kontutan hartuta, 1994ko 744,5 milioi horiek egungo 779 milioi lirakeke, beraz jaitsiera erreala %10ekoa da. Tarte honetan erakunde sozialen-dako subentzioak %4,68 jaitsi dira.

Euskalgintzan dihardugun erakundeei bereziki interesatzen zaigun datua, administrazioek euskalgintzako erakunde sozialei emandako subentzioak dira. Nafarroako gobernuaren kasuan, subentzio hauek Hizkuntz Politika eta Hezkuntza eta Kultura Saitetik datoz.

### Hizkuntz Politika, Hezkuntza eta Kultura Sailak Subentzioak euskalgintzako erakunde sozialei



-1994tik 1995era %12 jaitsi da Nafarroako Gobernuak euskalgintzako erakunde sozialei emandako subentzio kopurua. KPIa (IPC) kontutan izanda 1994ko 373 milioi horiek egungo 390 milioi beharko lukete izan, beraz errealki %15,9 jaitsi dira.

-1992tik 1995era %12,3 jeitsi da partida bera eta KPIa (IPC) kontutan izanda, 1992ko 374 milioi horiek gaur egungo 434 milioi behar lukete izan. Beraz errealki %24,4 jeitsi dira 1992tik 1995era bitartean euskalgintzako erakunde sozialei emandako subentzioak.


### EUSKARAREN AURREKONTUAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Sarreraren esan bezala, Ipar Euskal Herriko aurrekontuen azterketa, halaberharrez, ez dugu aurrekoak bezala, urtez urteko bilakaera eginez moldatu ahal izan. Urteroko aurrekontuen berri jasotzerik ez, eta bestalde euskal ihardueretarako dirulaguntzak iturri ezberdinetatik datozenez biziki nekeza egiten da zehazki iparraldeko kultur eta hizkuntz iharduerarako orotara ematen den dirua zenbatekoa den jakitea.



Euskal kultur ihardueretarako bideratzen den aurrekontuen berri EKEtik jaso dugu. Beraz, Txomin Heguy eta Claude Labatek Euskal Herria 2010 gogoetaldiaren karietarako moldatu txostenean oinarritu gara. Txostenean ordea, ez da komunikabide nahiz euskarazko irakaskuntzarako bideratzen den aurrekontuen berri ematen eta datu hauek zuzenean komunikabide eta ikastetxeetatik lortu ditugu.

Pyrénées Atlantiques departamendutik, Akitaniako erregiotik, estatutik eta udaletatik jasotzen dute laguntza iparraldean euskaingintzan diharduten erakundeek, ondoko grafikoetan ikus daitekeenez.


Iparraldean, kultur ihardueretarako orotara 81.193.500 libera (2.030 pezeta) jasotzen dituzte. Baina ez dira guztiak euskal kultur sorkuntzarako bideratzen, ezta gutxiago ere. Ondoko grafikoan ageri da euskal kultur produkzioa zer portzentaian eta zer nolako aurrekontuaz gauzatzen den.




Iparraldean azken aldian purian dagoen aldarrikapena barnealdea indartzearena da, kostaldea jendez eta zerbitzuz ornitzen den bitartean, barnealdea husten ari baita. Hau kultur iharduerarako bideratzen den subentzioetan ere isladatzen da.



Kopuru orokor hauek honela sailkatzen dira kultur ihardueraren arabera.



Azpimarragarria da iparraldeko kultur produkzioarako beste edozein subentzio iturrietatik baino (udalak salbu) gehiago jasotzen dela autofinantza bidez.



Urria da halaber, instituzioetatik iparraldeko euskarazko komunikabide eta irakaskuntzarako jasotzen den dirulaguntza.

## Olatz Osa - Euskararen aurrekontuak

### Euskarazko komunikabideei: 1994.urtean

	Prensa idatzia*	Irratiak*
Guztira: (Libera)	70.000	660.000
Pyrénées Atlantiques departamendutik	30.000	60.000
Akitaniako Erregiotik	20.000	-
Besterik	20.000	-
Gobernutik	-	600.000

Oharrak: \*Prensa idatzian Herria aldizkariak jasotzen duena hartu dugu kontutan. Ekaitza aldizkariak ez du deus jasotzen.

\*Irratiei dagokionez, Gure irratia, Irulegi irratia eta Xiberuko Boza hartu ditugu kontutan. Beraz, irradi bakoitzak 220.000 mila libera jasotzen ditu.

### SEASKARI: 1994.urtean

Guztira: (Libera)	1.250.000
Pyrénées Atlantiques departamendutik	250.000
Akitaniako Erregiotik*	-
Udaletik, guztira	1.000.000

Oharrak: Akitaniako Erregiotik ez da deus jasotzen. 1994.urtean inbertsionarako 210.000 libera eman bazituzten ere, soilik urte horretara mugatu behar da laguntza hau.

Datuak eskuartean bi ondorio nagusi atera litezke gutxienez. Batetik, Nafarroako gobernuaren euskararako aurrekontuak nola Eusko Jaurlearitzaren Kultura Saileko Hizkuntz Politikarako aurrekontuek izan duten jaitsiera kezkarria da, zer esanik ez Ipar Euskal Herrian euskalgintzan lanean diharduten talde eta elkarteek jasotzen duten laguntza. Bestetik, euskal kultur produkzioa ezezik euskarazko irakaskuntza ere urtetik urtera gehitzen eta hedatzen ari da jende asko eta askoren lan esker gaitza dela eta.



Beraz, produkzio hazkuntza horrek, ezinbestean, irizpide, antolaketa eta koordinazioa eskatzen du gerora sendotuz eta sormen bidean jarrai dezan. Horretarako bistan da talde eta erakunde sozialek bizirauteko laguntza soila baino gehiago behar dutela, eta sorkuntza eta sustapen programak ezezik, azpiegiturarako laguntzak ere ezinbestekoak dira.

Ezin bukatu lan hau burutu ahal izateko ezinbesteko laguntza luzatu digutenak aipatu gabe, Txomin Heguy, Iparraldeko euskarazko komunikabideak, Seaska, Mikel Vilches, EA eta HBko talde parlamentariak, eta Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua.